

UDALA AYUNTAMIENTO



Bilbao

**ATZERRIKO
IMMIGRAZIOA
BILBON**

2018

2018ko datu adierazgarrienak

27.609

atzerriko nazionalitatea
duten eta Bilbon erroldatuta
dauden pertsonak

41.766

atzerriko jatorria duten eta
Bilbon erroldatuta dauden
pertsonek

% 8,0

atzerriko nazionalitatea
duten eta Bilbon erroldatuta
dauden pertsonak

% 12,1

atzerriko jatorria duten eta
Bilbon erroldatuta dauden
pertsonek



Bilboko biztanleriaren bilakaera sexuaren eta nazionalitatearen arabera (2008-2018)


	Biztanle guztiak			Espainiar N. Biztanleak			Atzerriko N. Biztanleak		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2008	167.030	186.310	353.340	154.649	173.749	328.398	12.381	12.561	24.942
2009	168.019	186.841	354.860	153.927	172.957	326.884	14.092	13.884	27.976
2010	167.019	186.168	353.187	152.831	171.971	324.802	14.188	14.197	28.385
2011	167.176	186.080	353.256	152.122	171.271	323.393	15.054	14.809	29.863
2012	166.632	185.770	352.402	151.404	170.807	322.211	15.228	14.963	30.191
2013	165.170	184.699	349.869	150.913	170.433	321.346	14.257	14.266	28.523
2014	163.703	183.575	347.278	150.373	170.063	320.436	13.330	13.512	26.842
2015	163.106	183.172	346.278	150.357	170.221	320.578	12.749	12.951	25.700
2016	162.945	182.697	345.642	150.142	169.805	319.947	12.803	12.892	25.695
2017	162.692	182.782	345.474	149.671	169.729	319.400	13.021	13.053	26.074
2018	163.120	183.212	346.332	149.351	169.372	318.723	13.769	13.840	27.609
2008-2018	-3.910	-3.098	-7.008	-5.298	-4.377	-9.675	1.388	1.279	2.667

Sexuaren eta nazionalitatearen aldagaiak kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu 2018ko urtarrilaren 1ean, espainiar nazionalitatea duten biztanleen % 46,9 gizonak direla, eta % 53,1 emakumeak. Era berean, atzerriko biztanleriari dagokionez ere, % 49,9 gizonak dira, eta % 50,1 emakumeak, hurrenez hurren.

Azken hamarkada honetan, udalerriko biztanle-kopurua murriztu egin da. Hala ere, aurtun joera inbertitu egin da; izan ere, Bilbon erroldatuta dauden pertsonen kopurua hazi egin da, atzerriko nazionalitatea duten biztanle-kopurua areagotu delako. Hala eta guztiz ere, 2008. urteaz geroztik, Bilbok 7.008 biztanle gutxiago ditu: nazionalitate espainiarreko 3.910 gizon eta 3.098 emakume euskaldun galdu ditu. Galera hori, zati batean, konpentsatu egin da, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen gehikuntzari esker: 1.388 gizon eta 1.279 emakume.


Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2018

Bilboko biztanleriaren bilakaera nazionalitatearen arabera (2008-2018)



Hau da, 2018ko urtarrilaren 1ean 2017. urteko egun berean baino 858 pertsona gehiago daude Bilbon erroldatuta. Gainera, 27.609 atzerritar daude.

Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen urtetik urterako gehikuntza Bilbon, 2008-2018




Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kopurua hazi egin da urtetik urtera Bilbon, 2017ko urtarriletik aurrerako joera berriari jarraiki.


Oro har, atzeraldi ekonomikoko aldiaren ostean (2010-2014) eta indize makroekonomikoen hobekuntzari esker, goranzko joera antzeman da migrazio-fluxuetan, nahiz eta ez den oparoaldi ekonomikoko urteetan zegoena bezain handia.

Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2018


Bilbon erroldatuta dauden atzerrian jaiotako biztanleen eta atzerriko nazionalitatea duten biztanleen bilakaera (2011-2018)



Garrantzitsua da atzerriko nazionalitatea duten pertsonak eta jatorri atzerritarra duten pertsonak ondo desberdintzea; izan ere, nazionalizatzeko prozesuak gero eta ugariagoak dira. Horiek horrela, nazionalitate espainiarra duten pertsonen eta atzerrian jaiotako pertsonen arteko "arrakala" 2011. urteaz geroztik handituz joan dela ikus dezakegu. 2018an, atzerriko nazionalitatea duten 27.609 pertsona daude, eta atzerrian jaiotako 39.344 pertsona.




Immigrazio-portzentajearen bilakaera Bilbon (2008-2018) eta beste testuinguru batzuetan (2018)



Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen pisua apur bat areagotu da bai EAE osoan (2017an % 5,9 eta 2018an % 6,9), bai Bizkaiko hiriburuan (% 7,5 eta % 8,0, hurrenez hurren). Bestalde, lurralde historiko guztietan pixka bat handitu da atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kopurua.

2018ko hogei nazionalitate nagusien banaketa



- Bilboko atzerriko biztanleen nazionalitate nagusia marokoarra da, eta atzerriko biztanleria osoaren % 10,4 hartzen du.
- Hurrengo nazionalitate ugariak errumaniarra (% 9,0) eta boliviarra dira (% 8,4).
- lazko datuekin alderatuta, nabarmentzekoa da ondoko nazionalitate hauen presentzia erlatiboa areagotu egin dela: Kolonbia (% 7,1, aurreko hiru urteetako hazkunde-joerari jarraiki), Nikaragua (% 6,0) eta Venezuela (% 3,2).

Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2018

Bilbon erroldatutako biztanleak, nazionalitatea eta jatorria (jaioterria) (absolutuak)

	Guztira	Gizona	Emakumea
Atzerriko nazionalitatea duten biztanleak	27.609	13.769	13.840
Espainiar nazionalitatea duten atzerrian jaiotako biztanleak	14.157	5.649	8.508
Atzerriko jatorria duten biztanle guztiak	41.766	19.418	22.348
Espainiar nazionalitatea duten Espainiako estatuan jaiotako biztanleak	304.566	143.702	160.864
Erroldatutako pertsona guztiak	346.332	163.120	183.212

Espainiar nazionalitatea duten eta atzerrian jaio ziren biztanleen salbuespenak salbu, atzerrian jaio ziren eta nazionalizatutako biztanletzat jo daitezkeen 14.157 pertsona daude erroldatuta Bilbon (iaz baino 495 pertsona gehiago). Sexuaren arabera, nazionalizatutako biztanleen % 60,1 emakumeak dira, eta % 39,9 gizonak.

Kolektibo hori bilbotarren % 4,1 da. Pertsona horiek —atzerrian jaio ziren baina gaur egun nazionalitate espainiarra duten biztanleak— eta gaur egun atzerriko nazionalitatea duten pertsonak batuz gero (% 8,0), ikus dezakegu Bilboko biztanleen % 12,1ak jatorri atzerritarra duela eta gainerako % 87,9ak Espainiako estatuan duela jatorria. Datu horiek iazkoekin alderatuz gero, antzeman daiteke migrazio-mugimenduen areagotze arina eta nazionalizatzeen egonkortzea gertatu direla (2017. urtean: atzerriko biztanleen % 7,5 eta atzerrian jaiotako biztanleen % 4,0).

Nazionalizatzeen efektu horren ondorioz, nazionalitatearen aldagaiak gain, jatorriaren aldagaia ere kontuan hartu behar da. Txosten honetan atzerriko jatorria aipatzen dugunean, ondokoak barne hartzen ditugu: atzerriko nazionalitatea duten pertsonak eta atzerrian jaio ziren eta nazionalitate espainiarra duten pertsonak.

Atzerriko immigrazioa Bilbon. 2018


Bilbon erroldatutako biztanleak, atzerriko jatorria duten nazionalizatutako biztanleen bilakaera (2011-18)

	Nazionalizatzeak	Atzerriko jatorria duten biztanleak	%
2011	7489	37352	20,0
2012	8177	38368	21,3
2013	9193	37716	24,4
2014	10234	37076	27,6
2015	11773	37473	31,4
2016	12582	38277	32,9
2017	13662	39736	34,4
2018	14157	41766	33,9

Atzerriko immigranteak nazionalizatzeko prozesua pixkanakakoa eta etengabea da: 2018an, atzerrian jaiotako eta dagoeneko nazionalitate espainiarra lortu duten 14.157 pertsona daude erroldatuta Bilbon, hau da, 2017an baino 495 gehiago.

Atzerriko jatorria duten Bilbon erroldatutako biztanle guztietatik (41.766 pertsona) dagoeneko % 33,9k jaso du espainiar nazionalitatea. Hau da, hiru immigrantetik bat eskubide osoko euskalduna da dagoeneko.

Atzerriko jatorria duten eta jaioterriko nazionalitatea duten biztanleak




Grafikoan jaso diren jatorriek atzerrian jaio eta espainiar nazionalitatea duten pertsonen hogeitatu jatorri ugariak islatzen dituzte.

Kolonbiako biztanleak dira, nabarmen, ugariak, jatorri guztien ia laurden bat dira eta (% 23,5). Atzetik ditu Bolivia eta Ekuador, ia-ia hurrengo nazionalitateak bikoizten dituztenak. Jatorri boliviarra duten pertsonen kasua nabarmentzekoa da; izan ere, azken urteotan kopuru hori haziz joan da, eta 2018an nazionalitate guztien % 13,9 da dagoeneko.


Nazionalitate horien artean, latinoamerikarrez gain europarrak ere gailentzen dira, besteak beste, Frantzia, Alemania, Errusia, Erresuma Batua eta Portugal.

Ordezkapeneko nazionalitate nagusien feminizazioaren hazkunde prozesua, 2018 (%)




“Ordezkapeneko nazionalitate” nagusien artean, hau da, bolumenagatik mende hasierako nazionalitate “historikoak” ordezkatzen ari diren nazionalitateen artean (Kolonbia, Bolivia...), ondokoak gailentzen dira: Nikaragua, Honduras eta Paraguai, funtsean. Horiei dagokienez, azken urteetako feminizazio-prozesua egonkortu egin da (% 81,6, % 77,8 eta % 72,5, hurrenez hurren) kolektibo latinoamerikarren artean.

Espainiar JATORRIA duten Bilboko biztanleen adin-piramidea 2018




Atzerriko JATORRIA duten Bilboko biztanleen adin-piramidea 2018



Esan bezala, atzerriko biztanleei buruz ari garenean, gero eta beharrezkoagoa da euren jatorria aipatzea eta gutxiago euren nazionalitatea.

Bilboko populazio-piramideen grafikoek eta atzerriko eta espainiar jatorriko biztanleen adin-egiturak agerian uzten dute aurreko tauletan eta grafikoetan deskribatu duguna: espainiar jatorriko biztanleria guztiz zahartuago bat, non mendekoei eusteko gero eta pertsona aktibo gutxiago dagoen, eta atzerriko jatorria duen biztanleria, zeina potentzialki aktiboak eta potentzialki ugalkorrak diren adin-tarteetan kontzentratua dagoen.


Bilboko biztanle guztien adin-piramidea sexuaren eta JATORRIaren arabera (2018)




Atzerriko eta Espainiako jatorria duten biztanleen biztanle-piramideak batuz, ikus dezakegu atzerriko biztanleen ekarpena esanguratsua izaten hasten dela hogeitau urteetatik aurrera gutxi gorabehera, eta are gehiago emakumeen kasuan gizonezkoenean baino.

Ekarpen hori, adin-tarte jakin batzuetan aipagarria den arren, ez dirudi nahikoa izango denik, egungo joeren erritmoan, Bilboko biztanle-piramidea orekatzeko; izan ere, “upel” antz handiagoa du “piramidearena” baino, eta urria dirudien ordezkatzeko-oinarria falta zaio.

TASA DE DEPENDENCIA* POR ORIGEN, 2018

 POBLACIÓN ACTIVA
Personas entre
16 y 64 años

 POBLACIÓN INACTIVA
Personas menores de 16
y mayores de 64 años

ORIGEN ESPAÑOL



Por cada

10 PERSONAS
ACTIVAS
hay
6,6 PERSONAS
INACTIVAS



1,52

TASA DE DEPENDENCIA

ORIGEN EXTRANJERO



Por cada

10 PERSONAS
ACTIVAS
hay
1,8 PERSONAS
INACTIVAS




5,43

* Mendekotasun-tasa: 16 eta 64 arteko adina duten zenbat pertsona dauden 16 urtetik beherako eta 64 urtetik gorako pertsona bakoitzeko.

Adinari buruzko datuek berresten dute atzerriko jatorria duten biztanleen arteko mendeko pertsona kopuru txikiak espainiar jatorria duten biztanleen zifrak arintzen dituela zati batean. Hau da, espainiar jatorriko biztanleen artean, 1,52 pertsonak egin behar diote aurre mendeko pertsona bati; aitzitik, atzerriko jatorria duten biztanleen kasuan, ahalegin hori 5,43 pertsona artean banatzen da, bi biztanleria horien mendekotasun-tasek adierazten duten bezala.

Bilboko auzoetan atzerriko NAZIONALITATEA duten biztanleen ehunekoa, HANDIENETIK TXIKIENERA. 2018*




* Barrutietako BARREIATUEN datu hutsalak ezabatu dira.

Bilbo Zaharreko auzoak (San Frantzisko, Zabala eta Bilbo Zaharra) dira, nabarmen, atzerriko nazionalitateko biztanle-pisu handieneko barne-distribuzioa daukatenak.


Horien atzetik honako auzo hauek datoz: Iturrigorri, Arabella eta Iralabari.

Bilboko barrutietan atzerriko NAZIONALITATEA duten biztanleen ehunekoaren bilakaera. 2018



Atzerriko nazionalitateko biztanleen banaketa barrutien arabera aztertuz gero, ikus dezakegu barruti guztietan, Abandon izan ezik (berdin mantendu dena), hazi dela atzerriko biztanleen kopurua (Errekalde eta Uribarri , +0,7 puntu; Otxarkoaga, +0,6; Ibaiondo eta Begoña, +0,5; Basurtu, +0,3; eta Deustu , +0,2). Horrek guztiak pentsarazten digu joera aldatu egin dela eta kolektibo horrek aurreko urteetan baino presentzia handiago duela.

Atzerriko NAZIONALITATEA duten biztanleen ehunekoa Bilboko barrutien arabera: 2008 eta 2018



2008. urteaz geroztik, atzerriko nazionalitatea duten biztanleen kopurua 0,9 puntu hazi da (% 7,1etik % 8,0ra).

Barne hazkunde gehien izan duen barrutia Errekalde izan da, +2,7 punturekin (% 8,6tik % 11,3ra), atzetik ditu Begoña (+1,9), Uribarri (+1,7) eta Otxarkoaga (1,3). Kontrako kasuan daude pisu espezifikoak galdu dutenak, besteak beste Abando (-0,6), Ibaiondo (-0,4), Basurtu-Zorrotza (-0,3) edo Deustu (-0,1).

Egoitza-aldakuntzen bolumenaren bilakaera Bilbon, 2005-2017

	Altak	Bajak	Saldoa
2005	16.437	15.687	750
2007	17.936	17.694	242
2009	17.117	18.777	- 1.660
2011	18.013	18.867	- 854
2013	11.948	10.249	1.699
2015	13.585	9.917	3.668
2016	14.076	10.077	3.999
2017	15.033	9.966	5.067

Egoitza-aldakuntzek atzerriko edo Espainiako estatuko beste udalerrri bateko jatorria edo helmuga duten pertsona-mugimenduen inguruko informazioa ematen dute. Egoitza-aldakuntzek ez dute udalerrian gertatzen diren alta eta baja guztien inguruko informazioa ematen; izan ere, ez dituzte kontuan hartzen mugimendu naturalen (jaiotzak eta heriotzak) ondoriozko aldaketak.

2017. urtean zehar egoitza aldatu duten eta Bilbon erroldatu diren pertsonen 15.033 alta eta beste udalerrri batera edo herrialde batera bizitzera joan diren pertsonen 9.966 baja egon dira Bilboko erroldan.

Aurreko urteko (2016) datuekin alderatuta altak areagotu eta bajak gutxiagotu egin dira erroldari dagokionez, horrenbestez, migrazio-saldoa handitu egin da.

Bilbon bizileku-baimena duten atzerriko biztanleen estimazioa eremu geografikoen arabera

	Bilbon erroldatutako P.			Ratioa
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
	13.769	13.840	27.609	0,89
Europa	2.534	2.766	5.300	1,00
EB-15	1.073	868	1.941	1,00
EB-25	65	100	165	1,00
EB 28 (Bulgaria, Errumania eta Kroazia)	1.161	1.412	2.573	1,00
Gainerako Europa	235	386	621	0,62
Afrika	4.830	2.349	7.179	0,72
Magreb	2.563	1.114	3.677	0,75
Gainerako Afrika	2.267	1.235	3.502	0,68
Amerika	4.539	7.331	11.870	0,64
Ipar Amerika	93	115	208	0,79
Latinoamerika	4.446	7.216	11.662	0,64
Asia	1.827	1.366	3.193	0,96
Txina	1.057	993	2.050	1,00
Asiako beste herrialde batzuk	770	373	1.143	0,84
Ozeania	9	3	12	1,00
Aberrigabeak eta ezezagunak	30	25	55	0,10

Itu.: Barne Ministerioa. Bizkaia osorako datuak eta Bilboko Udaleko Erroldaren zifrekin egindako estrapolazio proportzionala

Egoera administratibo erregularra duten pertsonen buruz Barne Ministerioak dituen Bizkaiko datuetan oinarrituta, kalkulatu dugu Bilbon erroldatutako atzerriko nazionalitatea duten 27.609 pertsonetatik 24.572 pertsona egoera erregularrean egon daitezkeela. Horrek esan nahi du ratioa 0,89koa dela, hau da, ia zkoa baino apur bat txikiagoa (0,91). Edonola ere, datu horiek kontu handiz hartu behar dira, udalak ez dituelako datu horiek.

Ondorio nagusiak

1. 2018ko urtarrilaren 1eko datuek azken urteotako bideari jarraitzen diote: atzerriko immigranteen etorreraren hazkundera moderatua da, eta bat dator hobekuntzaren bidetik doan ziklo ekonomikoarekin eta hazkunde ekonomiko etengabearekin.
2. Gure auzokoen dibertsitateak handitzen jarraitzen du: Bilbon bizi diren atzerritarren portzentajea 2018an % 8,0koa da, 2017an baino apur bat altuagoa. Zifra horri espainiar nazionalitatea duten atzerrian jaiotako pertsonak batuz gero, kanpoko jatorria duten Bilboko pertsonen zifra % 12,1era areagotzen da, hau da, 2017an baino sei hamarren gehiago.
3. Egitate horrek eta uda honetan gertatu diren migrazio-prozesu berriek norabide bikoitzean lan egitera bultzatzen gaituzte: harrera eta dibertsitatearen kudeaketa kultura-artekotasunaren ildotik.
4. Atzerriko jatorria edo/eta nazionalitatea duten biztanleen erdia baino gehiago latinoamerikarrak dira. Profil ohikoena emakume latinoamerikarrarena da oraindik ere, lan-merkatuko gure beharrezanekin bat.
5. Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen adin-egiturak, guztiz gazteagoa denak, zati batean arintzen ditu espainiar nazionalitateko (jatorria) biztanleriaren zahartze-arazo larriaren ondorioak.
6. Ez dugu aldaketarik antzeman atzerriko jatorria eta/edo nazionalitatea duten pertsonen Bilboko barrutietako banaketa espazialean.
7. Inklusio- eta integrazio-prozesuetan segmentazioa dagoela pentsatzen dugu oraindik: alde batetik, pertsonak eta kolektiboek gure gizartean duten maila hobetzen doala ikusten dugu, eta inklusio-adierazle oso positiboak ematen dituztela; baina, beste alde batetik, gure gizartean erabat integratzeko eskusio-arrisku nabarmena islatzen duten adierazleak dituzten taldeak antzeman ditugu.

UDALA AYUNTAMIENTO



Bilbao
